

Gizarte-lana

euskaraz



Osakidetza

Euskadi, auzolana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

Gizarte-lana

euskaraz



ARGITARALDIA

Lehenengoa, 2023ko abendua

ARGITARATZAILEA

Osakidetza. Araba kalea 45
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba)

©

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioa
Osakidetza

INTERNET

www.osakidetza.euskadi.eus

E-MAILA

coordinacion@osakidetza.eus

Agurra

Euskararen ezagutzak nabarmen egin du gora azken hamarkadetan gizarteko hainbat esparrutan (VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021), eta lan-mundua ez da salbuespena izan. Gero eta gehiago dira euskara ikasi eta erabiltzen duten profesionalak, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenak, edota ikasketak euskaraz egin dituztenak. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan, zehazki, profesionalen erdiek baino gehiagok daukate egiaztatuta hizkuntza eskakizunen bat.

Nahiz eta aurrerapauso linguistikoak etengabekoak izan, langile asko ez dira oraindik egunerokotasunean euskaraz aritzera ausartzen, lanak eskatzen duen hizkuntza-maila teknikoagatik, segurtasun ezagatik zein ohitura faltagatik. Besteak beste, gabezia horiei erantzuteko onartu zen Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana (2022-2028).

Hain zuzen ere, ahulezia horri aurre egiteko ekarpena egin nahi dio gizarte-lanaren eskuliburu honek, eta III. Planak 8.2.2. atalean dioenari jarraikiz, gidak euskara-planaren lehentasunak eta zerbitzu-erakundeetako beharrak bildu ditu.

Esan bezala, eskuliburu hau Osakidetza Euskara Zerbitzuak sortu eta osatu du, Elhuyar Aholkularitzak lagunduta, eta, jardun horretan, hainbat profesionalen ezinbesteko ekarpenak jaso ditu. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu honen parte izan diren Osakidetza langile guztiei, eta bereziki lantaldean parte hartu duten gizarte-langileei; izan ere, beraien laguntza eta ahaleginik gabe ezin izango genukeen material hau osatu.

Gizarte-langileak:

- Silvia Akerreta Eslava
- Olatz Gandarias Basabe
- Miren Karmele Iribar Sorazu
- Maria Isabel Larrinaga Kortabitarte
- Iñaki Leizeaga Ugarte
- Janire Muñiz Jauregi
- Amagoia Telleria Moran
- Carmen Valois Nuñez

Euskara Zerbitzu Korporatiboa:

- Iñaki Beristain Agirre (Koord.)
- Urko Ezkurdia Arregi

Gogoan izan gidaliburu honen asmoa euskara eguneroko lanean txertatzea dela. Beraz, bertan agertzen diren gomendio eta aholkuak ez dira hitzez hitz hartu behar eta betiere profesionalaren esku geldituko da kasuan kasu hartu beharreko erabakia.

Osakidetza-irizpideak

“Norbaiti ulertzen duen hizkuntza batean hitz egiten badiozu, mezua burura iritsiko zaio; bere hizkuntzan hitz egiten badiozu, bihotzeraino iritsiko zaio”.

Nelson Mandela



NOLA ERABILI HIZKUNTZA OFIZIALAK OSAKIDETZAN?

Herritarrek eskubidea dute nahi duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko.

● ESKATU BAINO LEHEN ESKAINI

Euskaraz egingo ditugu agurra eta lehendabiziko hitzak: “Osakidetza, egun on?”.

● NOLA JARRAITU ELKARRIZKETAREKIN

BADAKIZU EUSKARAZ? Segi solasaldiak aukatutako hizkuntzan.

EZ DAKIZU EUSKARAZ? Herritarrei egoera azaldu eta lankide euskaldun batengana bideratu, posible bada.

● IKUS-ENTZUNEZKO MEZUAK NOLA?

Megafoiniako, erantzungailuetako eta txanda-pantailetak mezuak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz emango ditugu.

● IDATZIZ

Dokumentazio guztia elebiduna izango da. Dokumentazio pertsonalizatua, ordea, pazienteak aukeratutako hizkuntzan emango dugu.

● IRUDI KORPORATIBOA

Elebidunak izango dira errotuluak, kartelak, zigiluak, imprimakiak, intraneta, eta abar.

● KOMUNIKAZIO TELEMATIKOA

Ziurtatuko dugu bi hizkuntza ofizialean jaso eta eska daitekeela informazioa.

● NOLA IDENTIFIKATU ZERBITZU ETA LANGILE ELEBIDUNAK?

Profesional/unitate elebidunak erraz identifikatzeko  bereizgarria erabiliko dugu.

● NOLA BERMATU PAZIENTEEN LEHENTASUNEZKO HIZKUNTZA?

- Ahozko harremanetarako zein hizkuntza ofizial nahiago duen galdetuko diogu, eta bere hizkuntza-aukera erregistratuko dugu. Euskara aukeratzeko badu, bere izenaren ondoren  ikurra agertuko da, eta arreta euskaraz eskainiko diogu.
- Euskara aukeratu duen pazienteari, profesional euskaldunik nahi duen galdetuko diogu.

● ZERBITZU EDO UNITATEKO BURUEN ARDURA

Hizkuntzen erabilera-irizpide hauek langileei jakinaraztea eta irizpideon jarraipena egitea.



Zenbait gomedio:

1) Telefonoz aritzeko

- Hartu telefonoa beti euskaraz; euskaldunari euskaraz jarraitzeko aukera emango diozu.
- Zuk deitu baldin baduzu, agurtu euskaraz eta egin lehen hitzak euskaraz; solaskideak ez baldin badaki, adieraziko dizu, eta orduan pasatu gaztelaniara.
- Hitz garrantzitsuak azpimarratu edo errepikatu, polikiago esan eta ziurtatu solaskideak ulertu dituela.
- Utzi solaskideari hitz egiten.
- Asko edo luze hitz egin behar baldin baduzu, tarteka aldatu intonazioa eta erritmoa, hartu arnasaldiak.
- Telefono-zenbakirik eman behar baldin baduzu, esan zenbakiak banan-banan, hiruko edo biko taldetan: 943 00 79 99 (bederatzi-lau-hiru, zero-zero, zazpi-bederatzi, bederatzi-bederatzi).

2) Bileretan

Osakidetzan bilera ugari egiten ditugu, eta gizarte-langileok ere bai: erabiltzaileekin, senideekin, lankideekin, administrazioetako langileekin... Bilera horietako asko euskaraz egin ditzakegu, parte-hartzaile askok nahikoa gaitasun baitaukate, eta pixkanaka normaltasun horretara iritsi beharko ginateke.

Hiru zati edo urrats nagusi bereiziko ditugu:

Bileraren aurretik

Parte-hartzaileak aztertu, euskaraz badakiten edo zer maila daukaten.

	Denek ulertzen dute	Batzuek ulertzen dute
Bilera-deia (e-maila, kartela...)	Aztertu eta proposatu euskara hutsean bidaltzeko aukera.	Ele bietan, euskara nabarmenduta.
Bilerarako materiala	Aztertu eta proposatu euskara hutsean bidaltzeko aukera.	Ele bietan, euskara nabarmenduta. Material batzuk gaztelaniaz, beste batzuk euskaraz.
Bileraren gogorazpena (e-maila, telefono-mezua...)	Aztertu eta proposatu euskara hutsean bidaltzeko aukera.	Ele bietan, euskara nabarmenduta.

Bilera egin bitartean

Euskaraz abiatu bilera ongietorria egiteko.

	Denek ulertzen dute	Batzuek ulertzen dute
Bilerako hizkuntza erabaki	Proposatu euskara sartzea pixkanaka eta ahalegintzea	Erdaraz
Ongi etorria egin	Euskaraz	Euskaraz
Sarrera, gaiak, denbora	Euskaraz	Azalpenak hizkuntza batean, edukiak (PPT) beste batean
Bilerarako materiala	Ahal den guztia euskaraz	Batzuk euskaraz, beste batzuk gaztelaniaz
Bileraren amaiera	Euskaraz	Euskaraz

Bileraren ondoren

	Denek ulertzen dute	Batzuek ulertzen dute
Akta	Euskara hutsean	Ele bietan

Oso lagungarria litzateke bileretarako **euskarriak egokitzea**:

- Bilera-deiaren eredua: ele bietan eta euskara nabarmenduta.
- Akta-eredua: ele bietan eta euskara nabarmenduta.
- Bilera telematikoetarako, atzealdean jartzeko hondoa, euskarari erreferentzia egiten dion zerbaitekin: “(nirekin) euskaraz”, “Nahi baduzu, euskaraz”...
- Orri plastifikatu bat presta daiteke bilera-geletako mahaian jartzeko, bilera hasi aurretik euskaraz egiteko aukera gogorarazteko.

Aurkibidea

1. Gizarte-diagnostikoa 13

2. Hiztegia 21

- Ordua 22
 - Urteak, hilabeteak, egunak 22
 - Euskaraz zuzen(ago) eta egoki(ago) 23
 - Osakidetzako lanbide-taldeak eta lanbideak 28
 - Laburtzapen batzuk 30
 - Laneko ohiko hiztegia 34
-

3. Material lagungarria 49

1. Gizarte-diagnostikoa

1. Gizarte-diagnostikoa

Ekonomia, lana eta bizilekua

1. alderdia: EGOERA EKONOMIKOA (sarrerak/gastuak)

Erabiltzaileari eta bizikide-taldeari buruzko datuak:

- Diru-sarrerak: zenbat diru jasotzen duzu? Nondik jasotzen duzu? Zenbatean behin jasotzen duzu? Sarrera horiek egonkorrak edo nahikoa seguruak dira? (Nomina, subsidioak, pentsioak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak...).
- Gastuak: zertan gastatzen duzu batez ere dirua (etxebizitza, jatekoa, arropa, garraioa...)? Eta beste zertan gastatzen duzu? Nola egiten diezu aurre gastuei? Zorrik badaukazu? Zerbaitetarako behar duzu dirua?.

2. alderdia: EGOERA OKUPAZIONALA EDO LAN-EGOERA

- Normalean lan egiten duzu? Langabezian zaude?
- Zenbat denbora daramazu lanik gabe? Badaukazu egoera aldatzeko edo hobetzeko itzaropenik?
- Enplegu ezkutuan ari zara? Zer lan-baldintzatan?
- Nolakoa izan da zure lan-ibilbidea? Noiz eta zertan hasi zinen lanean? Eta gero?
- Zerbait egiten duzu zure lan-egoera hobetzeko? Lanbiden izena emanda zaude? Hauetakoren bat egiten duzu: lanerako prestakuntza, eguneratze-ikastaroak (birziklapena), euskara-ikastaroak, informatika-ikastaroak, Curriculum Vitaearen eguneratzeak...

3. alderdia: EGOITZA-EGOERA

- Errolda: zein udalerritan zaude erroldatuta? Hori da zure benetako etxebizitza? Zein da zure jaioterria? Dokumentu ofizialetan hori jartzen du? Noiztik?.

- Nondik nora ibiltzen zara, zer herritatik zer herritara edo zer auzotatik zer auzotara? Zer herri ezagutu dituzu azkenaldian eta zertarako? Nondik nora mugitzen zara herrian, normalean? Zer ibilbide egiten dituzu?
- Baduzu bizileku finkorik? Non? Baduzu erresidentzia-baimenik? Eta lan-baimenik? Noiz artekoa?

T alderdia: EGOERA JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

- Galdetu ea baldintzak betetzen dituen hauek jasotzeko: Gizarte Segurantzako prestazioak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Gizarte Zerbitzuen prestazioak edo Doako Justizia.

Bizikidetza-eremua

4. alderdia: OSTATU- ETA ETXEBIZITZA-EGOERA

- Non bizi zara? Ba al daukazu etxebizitzarik?
- Etxe hori norena da? Zurea, familiarena, beste norbaitekin erdi bana, erakunderen batena...? Non dago etxea? Zer daukazu etxearen inguruan? Erosoa da?
- Noiztik bizi zara hor, horrela? Aurrera begira, aldaketarik aurreikusten duzu? Zergatik?

5. alderdia: LOTURA AFEKTIBOAK ETA GIZARTE-LAGUNTZA ESKURATZEA (iraupena, maiztasuna, motak eta edukiak, eta sare hornitzaileak)

- Zure inguruan, norekin daukazu harremana? Nolakoak dira harreman horiek? Arinak? Estuak? Norekin dira onak edo positiboak? Norekin dira txarrak edo negatiboak?
- Ingurura begiratuta, baten batek laguntzen dizu? Nork? Nola edo zertan laguntzen dizu? Nolakoak dira laguntzaile horiek? Senideak, lagunak, erakundeak, elkarteak, komunitatekoak...

6. alderdia: BIZIKIDEEN ARTEKO HARREMANEN EGOERA, HARREMAN PERTSONALENA, FAMILIAKOENA

- Nolakoa da zure bizimodua ingurukoekin? Etxean, familian, erakundearen barruan, auzoan, komunitatean...
- Badaukazu seniderik edo lagunik, laguntzen dizunik? Zer lotura du zurekin: anaia/neba, arreba/ahizpa, osaba-izeba...? Non daude, hurbil ala urrun? Nolakoa da lotura hori? Estua eta sarria, lasaia eta noizbehinkakoa?
- Nola moldatzen zarete familian? Bada gatazkarik? Hala bada, zergatik izaten da edo dira? Zenbat irauten dute? Zer egiten duzue hori gertatzen denean? Nola jokutzen duzue? Nola eragiten dizu horrek egunerokoan?

(Biktimarekin adingabeak bizi baldin badira, ebaluatu arrisku indibidualizatua).

7. alderdia: EGUNEROKO BIZITZAREN ANTOLAKETA (elikadura, higieena, osasun-zainketak, kudeaketa ekonomikoa)

- Nola antolatzen dituzu etxeko lanak? Zer egiten duzu zuk? Nor arduratzen da zertaz? Zer egiten duzu egunero? Eta astean behin? Eta noizean behin? Nork egiten ditu gosaria, bazkaria, askaria, afaria...? Nork garbitzen du sukaldea? Eta komunak? Eta etxean erratza pasatu? Eta hautsa kendu? Nork ordaintzen ditu gastuak (erosketak...)?

8. alderdia: BIZIKIDETZA-HARREMANAK BESTE TESTUINGURU BATZUETAN

- Nolako harremanak dauzkazu beste pertsona batzuekin, egunerokoan? Lanean? Eskolan? Gizarte-zerbitzuetan? ... Nola parte hartzen duzu horietan? Aktiboa zara? Arauak betetzen dituzu?

T alderdia: EGOERA JURIDIKO ADMINISTRATIBOA

- Etxebizitza duina edukitzeko eskubidea gauzatzen du? Eta elikatzeko eskubidea? Badu babesa, adingabea den aldetik edo desgaitasuna duen pertsona den aldetik? Hala balitz, nork du legezko ordezkariaren kargua?

Eremu pertsonala

9. alderdia: GAITASUNAK-TREBETASUN SOZIALAK

A taldea: gaitasun soziala

- Nola moldatzen zara beste batzuekin harremanak sortzeko eta mantentzeko? Nola moldatzen zara komunikazioan? Zer egiten duzu norbaitekin hitz egiten hasteko? Urrun edo mesfidati azaltzen zara? Gerturatu egiten zara? Zerbait berezia egiten duzu?
- Nola adierazten dituzu sentimenduak? Pozik zaudenean, triste, haserre, urduri, gogotsu... Badakizu entzuten? Zeure burua kontrolatzen duzu? Gatazkaren bat denean, zer egiten duzu?

B taldea: gaitasun kognitiboa

- Azalpenak ulertzeko zailtasunak dituzu? Zer azalpen mota? Gai zara zure beharrak eta besteenak zehazteko? Gai zara zure egoerari begiratu eta aztertzeko?
- Arreta galtzeko joera daukazu? Kosta egiten al zaizu adi egotea? Eta memoria arazorik baduzu? Gauzak ahazten zaizkizu?

C taldea: gaitasun instrumentala

- Nola moldatzen zara adiskideak egiten eta mantentzen?
- Moldatzen zara eguneroko kontuak egiten? Adibidez, medikuarekin hitzorduak eskatzen, udaletxera joan eta paperak eskatzen, pilulak hartzen, zure denbora librean zer egin behar duzun antolatzen...

D taldea: beste gaitasun eta trebetasun batzuk

- Nola moldatzen zara zeure burua zaintzeko (garbitzeko, dutxatzeko, arropa garbitzeko, arropa gordetzeko eta aukeratzeko, pilulak hartzeko...)? Zeuk erabakitzen duzu zer egin?
- Nola moldatzen zara lana, etxebizitza eta abar bilatu eta bertan irauteko?

10. alderdia: HEZIKETA, PRESTAKUNTZA, INFORMAZIOA ETA GAIKUNTZA

- Non ibili zinen eskolan? Zer ikasi duzu? Zer ikasketa-maila duzu? Zenbateko gaitasuna daukazu lanerako? Badaukazu gogorik lanerako?
- Nolakoa da zure gizarte-ingurua eta komunitate-ingurua? Zer dakizu eskubide sozialez? Ezagutzen

dituzu gizarte-babeseko sistemak, zer laguntza dauzkazun...?

11. alderdia: BIZITZA-DINAMISMOAK (autoestimua, aldarte, motibazioa, erantzukizuna, egoeraren kontzientzia orokorra)

- Zer iritzi duzu zeure buruari buruz? Nola zaude? Konfiantza duzu zeure buruarengan? Uste duzu gai zarela aldatzeko? Eta aldatu nahi duzu?
- Zure bizitzari begira, nolako ardura daukazu? Kontrolatzen duzu zure bizitza? Zeure buruaren jabe zara? Beste norbaiten mende zaude? Zu hasten zara gauzak egiten? Zer gertatuko zain egoten zara?

12. alderdia: BABES-SISTEMEN ERABILERA

- Egin duzu laguntza- edo babes-eskaerarik?
- Egin baduzu, zein? Nolakoa?
- Eta zer iruditzen zaizu? Ondo? Nola erabiltzen dituzu laguntza horiek?

T alderdia: EGOERA JURIDIKO ADMINISTRATIBOA

- Badu nortasun-dokumenturik (NANa, NIEa, Pasaportea)? Indarrean/Iraungita dago? Aldaketarik egin du Erregistro Zibilean? Badu edo izan du epaitegietan zerbait, epaiketaren bat-edo, eta handik zigorrik edo neurririk (debekurik) jarri diote?

Osasuna

13. alderdia: OSASUNAREN EGOERA (fisikoa, burukoa, adikzioak; tratamenduak)

- Nola zaude osasunez? Ondo sentitzen zara? Zer egoeratan zaude? Baduzu zailtasunik? Gorputzekoa, burukoa, droga-mendekotasunik/adikziorik...
- Inoiz egin dizute diagnostikorik? Esan dizute arreta sanitarioa behar duzun?
- Baduzu tratamendurik? Hala bada, zein? Segimendurik egiten dizute? Laguntzarik behar duzu tratamendurako (medikazioa hartzeko edota erosteko)?

14. alderdia: LANERAKO EZINTASUN-, DESGAITASUN- ETA MENDEKOTASUN-EGOERA

- Baduzu desgaitasun edota mendekotasun aitorturik? Esan dizute ez zarela gai lan edo eginkizun batzuk egiteko, edo laguntza behar duzula? Hala bada, zer mailatakoa?
- Besteen laguntza behar duzu beste jarduera batzuetarako? Zeinetarako?

T alderdia: EGOERA JURIDIKO ADMINISTRATIBOA

- Badu osasun-txartelik? Sistemaren prestazio guztiak eskuratzeko aukera bermatuta dauka? Desgaitasun- edota mendekotasun-aitortzak berekin dakartzan eskubideak direla eta, nola dago?

Gizartea

15. alderdia: ONARPEN SOZIALA ETA EGUNEROKO BIZIKIDETZA KOMUNITATEAN

- Ingurura begiratuta, uste duzu onartzen zaituztela? Kontuan hartzen zaituzte? (Erantzuna baiezkoa edo ezezkoa izan) Zergatik? Eman adibideak zure erantzunak arrazoitzeko.

16. alderdia: INGURU SOZIALERA ETA GIZARTE-ARAUETARA MOLDATZEA

- Ezagutzen dituzu gizarteko arauak, zer egin daitekeen eta zer ez? Inoiz jaso duzu salaketarik? Indarkeria erabiltzeko joera duzu? Eta lapurretarik egin duzu?
- Ingurura ondo moldatzen zara, ala kostatu egiten zaizu?

17. alderdia: HARREMAN SOZIALEKIKO JARRERA ETA PARTAIDETZA SOZIALA

- Parte hartzen duzu inguruko ekintzetan? Zer egiten duzu zure ingurukoekin? Nolako harremanak daukazu ingurukoekin? Egunero eta sarri, noizean behin... Eta gustura zaude harreman eta bizimodu horiekin? Uste duzu baztertuta zaudela, inork ez dizula kasurik egiten edo aintzat hartzen?

2. Hiztegia

2. Hiztegia

Ordua

Orduak deklinatzean, pluralean (-etan, -etatik...): **10:00etan, 15:00etatik...**, ordu bata izan ezik: **01:00ean**. Zenbakiak lau digiturekin idazten dira, eta tartean bi puntu: **08:00etan**; beste aukera bat: **goizeko 8etan**.

Minutuak deklinatzean: singularrean (-ean edo -an, -etik edo -tik...). Kontuan izan behar da bokalez ala kontsonantez amaitzen den; adibidez, **10:15ean, 08:50etik, 08:11tik...**

Urteak, hilabeteak, egunak

1. Urtea zuzenean deklinatu, marratxorik gabe lotu atzizkia: **2020ko, 2021eko, 2024ko...** Kontsonantez bukatuz gero, -eko; bokalez bukatuz gero, -ko.
2. **Bi mila eta hogeita lauko** (data adierazteko ezin da ***Bi mila hogeita lauko** modukorik erabili).
3. Zenbakiaren ondoren “urte” idatziz gero, zenbakiari erantsi puntua, eta irakurri -garren: **2024. urteko (bi mila eta hogeita laugarren urteko)**.
4. Urtea idaztean, tartean punturik ez: ***2.024 --> 2024**.
5. Hilabetea: minuskulaz, eta ez darama -a itsatsi edo berezkorik amaieran (**urtarril, otsail...**). Asteko egunek ere ez daramate (**astelehen, astearte...**). Beraz, **ekaineko, asteleheneko...** Eta ez ***ekainako, *astelehenako...**). Erabiltzean, ordea, mugatu egin behar ditugu, beste edozein hitz bezala: **urtarrila, otsaila, astelehena, asteartea...**
6. Asteko egunei dagokienez, euskalkiaren arabera izen desberdinak erabil daitezke, eta guztiak dira erabilgarriak: **asteartea** edo **martitzena, igandea** edo **domeka** edo **jaia...**

Euskaraz zuzen(ago) eta egoki(ago)

Zenbait hitzen erabilera:

Froga

Zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio du: **delituaren frogak, frogaren Argudioak**, etab.

Proba

Besteak probak dira: **liburuaren lehen probak, azterketa-probak, unibertsitatera sartzeko probak, idi-proba, DNA-proba, proba nuklearrak**, etab.

Gorputz

Gizakien eta animalien materiazko osagarria.

Gorpu

Gorputz hila, bereziki gizakiarena. Hilotza.

Mediku

Izena da, pertsona (sendagilea edo osagilea): **Medikuari deitu diot**.

Mediko

Izenondoa da, izenarekin batera erabiltzen da: **Azterketa medikoa egin du**.

Berreskuratu

Egokia “galdu zena berriz eskuratu” esan nahi denean. Beste adibide batzuk: **aginpidea berreskuratu, galdutako euskara berreskuratu**.

Osatu

Bere onera etorri esanahiarekin, egokiagoak dira **oneratu** (egoera oneratu), **osatu** (sendatu), etab.

Gizarte-zerbitzu

Hitz elkartua, izena+izena, eta marratxoa aukerakoa da.

Zerbitzu sozial

Izena eta adjektiboa, eta, beraz, marratxorik gabe idazten da. *Sozial* adjektiboa izenaren eskuinaldean jarri behar da: ***sozial arazo --> arazo sozial**.

Gizarte

Sozietate hitza “gizarte” (giza lagunartea) adieran ez erabiltzeko gomendatzen du Euskaltzaindiak; egokia *gizarte* bera da.

Besterik da sozietate edo elkarte motaren batez ari bagara; egokia da orduan: **sozietateen alorreko legeria; sozietate anonimo; sozietate mugatu**.

Jendarte

Tradizioan ez da inoiz erabili “gizarte” adierazteko. Bestelako adiera bat du Euskaltzaindiaren Hiztegia: **“leku agerian dagoen jendea; jendea, jende-multzoa”**.

Anbulatorio

Osasun-etxea, edo osasun-zerbitzu eta tratamenduez mintzatuz, eria ospitalizatu gabe ematen dena: ***kirurgia anbulatorioa***.

Deribatu

Hizkera sanitarioan, *deribazioa* hitzak berezko esanahia du, *bideratu* hitzetik haragokoa: administrazio sanitarioan egiten den izapide bat da. Honela defini daiteke: paziente bat, kontsultarteko bolante baten bidez, beste profesional batengana bidaltzea, arreta osagarria eskaintzeko diagnostikoari, tratamenduari eta errehabilitazioari dagokienez. Esaterako, ***Lehen Mailako Arretako familia-medikuak Arreta Espezializatura deribatzen ditu pazienteak***.

Heziketa

Hitz hauen arteko aldea oso lausoa den arren, bada bien arteko desberdintasun bat. *Heziketa* orokorra da, jendea heztean datza, balioak transmititzean. *Hezkuntza* baino praktikoagoa da.

Emergentzia

Emergentziak (*Emergencias*, gaztelaniaz) zerbitzu-erakundea da Osakidetzan. Emergentziek anbulantziak, 112 eta beste kudeatzen dituzte. Beraz, erakunde hori izendatzeko eta bertan egiten diren jardueri erreferentzia egiteko erabiliko da hitz hori. Adibidez, ***Anbulantzia emergentzia batera joan behar izan da, sutan zegoen etxe batera***.

*Anbulategi

***Anbulategi** hitza ez dago ondo sortua, erdal hitz mozturrotua da: ***anbula** hitzik ez dagoenez euskaraz, horren gainean ezin da hitz eratorririk sortu.

Bideratu

Euskaltzaindiak esanahi orokorra ematen dio *bideratu* aditzari, eta *deribatu* hizkera espezifikoetarako gordetzen du.

Hezkuntza

Hezkuntza akademikoagoa da *heziketa* baino. Nolanahi ere, egia da hezkuntza ematen duen pertsona batek heziketa ere ematen duela.

Larrialdi

Larrialdiak (*Urgencias* edota *emergencias*, gaztelaniaz) Etengabeko Arreta Guneetan eta ospitaleetan dauden unitateak/zerbitzuak dira. Hortaz, Osakidetzan erabiltzen diren irizpideak bateratzeko, aurrerantzean, ***Larrialdiak*** hobetsiko da unitate/zerbitzu horri erreferentzia egiteko. Zenbait kasutan gaztelaniazko *emergencia* hitza ordezkatzeko erabiltzen da *larrialdi*:
Salida de emergencias --> Larrialdietako irteera
Dispositivo de emergencias --> Larrialdietako gailu

Farmazia

Botika eta *farmazia* sendagaiak prestatzen edo saltzen diren etxea dira eta, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera sinonimotzat har badaitezke ere, Osakidetzaren testuetan, *farmazia* hitza hobetsiko dugu.

Botika

Osakidetzaren testuetan, *farmazia* hitza hobetsiko dugu.

Medikamentuaren sinonimotzat erabil daiteke.

Zaintza

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera *zaintza* eta *zainketa* sinonimoak badira ere, Osakidetzaren testuetan bata eta bestea esanahiaren arabera bereiztea proposatzen da.

Zaintza jagoletzari eta babesari dago lotuago (*zaintza epidemiologikoa*, *zaintza partekatua*...); gaztelaniazko *vigilancia* eta *custodia* adierazteko erabiltzen da, batik bat.

Zainketa

Zainketak erizainek, mendekotasunak dituzten pertsonen zaintzaileek eta bestelakoek ematen dituzte (hau da, gaztelaniazko *cuidados* hitzaren pareko).

EZ ERABILI:

- Komunikazioetan, amaieran, ***agurrak** --> *agur*, *agur t'erdi*, *agur bero bat*...
 - Eskerrak emateko ***eskerrik** --> *Eskerrik asko*, *mila esker*, *esker anitz*...
 - Aurrean ez dagoenari beste baten bidez bidaltzen zaizkion diosalak ez dira ***agurrak** --> *goraintziak* / *eskumuinak eman*.
-

Euskara ez-sexista

Hizkuntzak, berez, ez dira sexistak, hiztunek eragiten dute sexismoa, hizkuntza egoki edo behar bezala ez erabiltzeagatik.

Euskaraz, badira zenbait alderdi bereziki zaindu beharrekoak gure hizkera inklusiboagoa izateko:

1. **Generoa aditzean:** hitanoa erabiltzean, markatu egiten da nori zuzentzen ari gatzazkion.
2. **Gizaki** da genero-markarik ez duena, eta ez gizon. Kontuz honelakoekin: *gizon portatu, legegizon, plazagizon*, etab.
3. Euskaraz, hainbat **izenek generoa daukate**: *semea, alaba, aita, ama...* Arazoa sortzen da batzuetan horien plurala edo generikoa erabiltzean: *zenbat seme dituzu?* --> *Zenbat seme-alaba dituzu?* *Umearen aitek esan dute* --> *Umearen gurasok esan dute*. Dena den, genero markaturik gabeko hitzak erabiltzen saiatu.
4. Gaztelaniaz, **maskulino generikoa saihesteko estrategia batzuk** ez dira beharrezkoak euskaraz: *la persona interesada* --> *pertsona interesduna / (hobe) interesduna*.

Desgaitasunak

Desgaitasunak dituzten pertsonak adierazpidea erabiltzea gomendatzen da, *desgaitua* izen huts gisa erabili beharrean, hau da, *pertsonak* terminoa beti aurretik jartzea. Izan ere, desgaitasuna ez da pertsonari gertatzen zaion zerbait, baizik eta ezaugarri partikularrak dituen pertsona baten eta beraren ingurunearen arteko emaitza.

Minusbaliatu (minusbaliotasun), ezindu (ezintasun), elbarri, ezgaitu eta gisa bereko adierazpideak ez dira egokiak, bai konnotazio peioratibo nabariak dituztelako, bai zentzua ondo islatzen ez dutelako.

Illo beretik, ez dira erabili behar *minusbaliatuentzako komunak, minusbaliatuentzako aparkalekuak* eta antzeko esapideak. Desgaitasuna duten pertsonen erabiltzeko egokitutako zerbitzu horiek aipatzeko, egokiagoa eta zuzenagoa da *komun* edo *aparkaleku irisgarriak* esatea.

Desgaitasunik ez duten pertsonak aipatzeko, ez da erabili behar *normal* terminoa. Hobe da *desgaitasunik gabekoa* adierazpidea erabiltzea. Desgaitasunari buruzko ikuspegi alternatibo bat azpimarratu nahi denean, beste termino batzuk erabili ahal dira: *dibertsitate funtzionala, bestelakotasun funtzionala* edo *bestelako gaitasuna (diversidad funcional, gaztelaniaz)*.

Ez nahasi desgaitasuna eta mendekotasuna: mendekotasuna egoera bat da, eta desgaitasunen bat daukaten pertsonak ez dute zertan mendekotasun egoeran egon.

Osasun mentalaz

Oso garrantzitsua da osasun mentalaz ari garenean hitz egokiak erabiltzea eta osasun mentalaren zainketa bultzatzen duen informazio positiboa ematea.

Ez lotu ezinbestean gaixotasun mentalak eta desgaitasuna, ezta gaixotasun mentalak eta mendekotasuna ere. Gaixotasun mentala duten batzuek, noizten duten gaixotasunaren ondorioz, desgaitasuna edota mendekotasuna izan dezakete, baina ezin da orokortu. Beraz, ez dira *desgaitu* edo *mendeko* hitzak erabili behar nahasmendu mentalak dituzten pertsonen erreferentzia egiteko.

Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak edota nahasmendu mentala duten pertsonak adierazpideak erabiltzea gomendatzen da, *gaixo mentalak* erabili beharrean; hau da, hobe da *pertsonak* terminoa beti jartzea. Izan ere, gaixo mentalez hitz egitean pertsonaren ezaugarri bakarrera mugatzen da arreta, ez pertsonengan.

Gaixotasun mental terminoak neutroa dirudi, baina pertsonari leporatzen zaizkion estereotipo negatibo asko dakartza berekin. Hori dela eta, hobe da *osasun mentaleko arazo* edo *nahasmendu mental* terminoak erabiltzea.

Hiztegian jasotako esanahiaz harago, hobe da gaixotasunaren izena pertsonari erreferentzia egiteko substantibo gisa ez erabiltzea, nahasmenduak ez baitu definitzen pertsona. Hau da, ez dira *eskizofreniko*, *anorexiko*, *depresibo* eta antzeko hitzak erabili behar pertsonak definitzeko: *Eskizofrenikoa oihuka aterata zen gelatik, irainka --> Eskizofrenia zuen pazienteak oihuka aterata zen gelatik, irainka. Anorexikoarekin hitz egin zuten --> Anorexia duen mutilarekin hitz egin zuten.*

Halako arazoak dituzten pertsonak osasun mentaleko zentroetara joaten dira, ospitale psikiatrikoetara, ospitaleko psikiatria-zerbitzura, eguneko ospitaleetara edota errehabilitazio-zentroetara. Zentro horiei buruz hitz egiteko hobe da *eroetxe* eta *zoroetxe* hitzak ez erabiltzea.

Zahartzaroaz

Zahartzea ez da gaixotasun bat; beraz, ez dira adina eta mendekotasuna lotu behar. Mendekotasuna egoera bat da, ez izaera bat, eta, gainera, mendekotasun-egoerak haur, gazte eta helduengan ere gerta daitezke.

Gizarte-lana euskaraz

Beharrezkoa ez bada, hobe da pertsonen adina ez kalifikatzea. Besteak beste, *70 urteko adinekoa* esan beharrean, askotan nahikoa da *70 urteko gizona* esatea.

Nahikoa adina duten pertsonak definitu beharra badago, Osakidetzan *adinekoak*, *adinduak* edota (*pertsona*) *nagusiak* hitzak hobesten dira, ez *zaharrak*.

Zahartzaroa lan-egoerarekin lotzen da, baina ez da egokia, eta, horregatik, hobe da adineko jendea izendatzeko *jubilatuak*, *erretiratuak* edo *pentsiodunak* hitzak ez erabiltzea.

Horrez gain, batzuetan, gaztelaniazko *tercera edad* eufemismoa euskaratu nahian, *hirugarren adina* esaten zaio zahartzaroari euskaraz. Hobe da halakoak ez erabiltzea.

Osakidetzako lanbide-taldeak eta lanbideak

Oharra: Lanbide-taldeak pluralean agertzen dira

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
diplomados/as sanitarios/as	diplomadun sanitarioak
facultativos/as médicos/as y técnicos/as	fakultatibo medikoak eta teknikoak
subalternos/as, operarios/as	mendekoak, langileak
técnicos/as auxiliares de administración	administrazioko teknikari laguntzaileak
técnicos/as auxiliares profesionales	teknikari laguntzaile profesionalak
técnicos/as auxiliares sanitarios/as	teknikari laguntzaile sanitarioak
técnicos/as especialistas de administración	administrazioko teknikari espezialistak
técnicos/as especialistas profesionales	teknikari espezialista profesionalak
técnicos/as especialistas sanitarios/as	teknikari espezialista sanitarioak
técnicos/as medios/as	erdi-mailako teknikariak
técnicos/as superiores	goi-mailako teknikariak

Oharrak: Zerrenda honetan ez dira Osakidetzako lanpostu funtzional guztiak azaltzen, esate baterako, bi hizkuntzetan errepikatzen direnak (*fisioterapeuta* modukoak) kendu dira. Zerrenda osoa Intraneten ikusteko: **Lanpostu funtzionalak**. Bestalde, hitzak mugagabea agertzen dira.

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
administrativo/a	administrari
auxiliar administrativo/a	administrari laguntzaile
auxiliar de enfermería	erizaintzako laguntzaile
auxiliar de enfermería salud mental	osasun mentaleko erizaintzako laguntzaile
celador/a	zeladore
cocinero/a	sukaldari
enfermero/a	erizain
enfermero/a salud mental	osasun mentaleko erizain
farmacéutico/a	farmazialari
informático/a	informatikari
ingeniero/a	ingeniari
letrado/a	letradu
matrón/matrona	emagin
médico/a	mediku
médico/a psiquiatría	psikiatriako mediku
médico/a urgencias hospitalarias	ospitaleko larrialdietako mediku
monitor/a salud mental	osasun mentaleko monitore
oficial/a	ofizial
operario/a de servicios	zerbitzuetako langile
psicólogo/a	psikologo
secretario/a	idazkari
técnico/a especialista de laboratorio	laborategiko teknikari espezialista
técnico/a especialista en anatomía patológica	anatomia patologikoko teknikari espezialista
técnico/a especialista en psicología clínica	psikologia klinikoko teknikari espezialista
terapeuta ocupacional	terapeuta okupazionala
trabajador/a social	gizarte-langile

Laburtzapen batzuk

Siglak erabiltzean, ahal baldin bada hartu euskarazkoak erabiltzeko ohitura, are arrazoi gehiagorekin irakurtzen/esaten errazagoak baldin badira.

- Siglak maiuskulaz eta punturik gabe idazten dira, eta atzizkia zuzenean gehitzen zaie gehienetan, marratxorik gabe.
- Laburdurek amaieran puntua daramate, eta deklinatu behar baldin badira, ez erabiltzea eta hitza osorik idaztea gomendatzen da.
- Siglak eta laburdurak bereizteko: sigletan idatzita dagoena irakurtzen da (adibidez, SA “ese a”); laburduretan, berriz, atzealdean dagoena (adibidez, S.A. “sozietate anonimoa”).

ESANAHIA	LABURTZAPENA
adibidez	adib.
eta abar	etab.
faktura	fra.
idem	id.
kontu korrontea	k.k.
orrialdea(k)	or.
telefonoa	tel.
zenbakirik gabe	z.g.

ESANAHIA	LABURTZAPENA
astelehena	al.
asteartea	ar.
asteazkena	az.
osteguna	og.
ostirala	or.
larunbata	lr.
igandea	ig.
ESANAHIA	LABURTZAPENA
urtarrila	urt.
otsaila	ots.
martxoa	mar.
apirila	api.
maiatza	mai.
ekaina	eka.
uztaila	uzt.
abuztua	abu.
iraila	ira.
urria	urr.
azaroa	aza.
abendua	abe.

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
AA (Alcohólicos Anónimos)	AA (Alkoholiko Anonimoak)
AES (Ayudas de Emergencia Social)	GLL (Gizarte-larrialdietarako laguntzak)
Agipad (Asociación Guipuzcoana de Investigación y Prevención del Abuso de las Drogas)	Agipad (Drogen abusuaren ikerketa eta prebentziorako gipuzkoar elkartea)
APC (Apoyo Psicoeducativo Comunitario)	LPK (Laguntza psikoedukatibo komunitario)
AT (Ayudas Técnicas)	LT (Laguntza teknikoak)
BALORA (Valoración de la gravedad de situaciones de riesgo y desamparo en infancia)	BALORA (Haurren arrisku- eta babesgabetasun-egoeren larritasuna baloratzeko)
BARE (Baremo de Riesgos de Exclusión)	BARE (Gizarte-arriskuen baremo)
BVD (Solicitud de valoración de dependencia)	MBB (Mendekotasuna baloratzeko eskaera)
CAPV (Comunidad Autónoma del País Vasco)	EAE (Euskal Autonomia Erkidegoa)
CRPS (Centro de rehabilitación psicosocial)	EPZ (Errehabilitazio psikosozialeko zentro)
DNI (Documento nacional de identidad)	NAN (Nortasun-agiri nazional)
EPI (Equipo de psiquiatría infanto-juvenil)	HGPT (Haur eta gazteen psikiatriako talde)
EVAT (Equipo de valoración de atención temprana)	AGBT (Arreta goiztiarraren balorazioko talde)
FBS (Fondo de Bienestar Social)	GOF (Gizarte-ongizateko funts)
HDOM (Hospitalización a domicilio)	ETXOSP (Etxeko ospitalizazio)
IVD (Informe de Valoración de la Dependencia)	MET (Mendekotasuna ebaluatzeko txosten)
IRPF (Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas)	PFEZ (Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga)
IVD (Informe de valoración de la dependencia)	MET (Mendekotasuna ebaluatzeko txosten)

NIE (Número de identidad de extranjero)	AIZ (Atzerritarren identifikazio-zenbaki)
ONG (Organización no gubernamental)	GKE (Gobernuz kanpoko erakunde)
PAC (Punto de atención continuada)	EAG (Etengabeko arretako guneak)
PEAP (Prestación económica de asistencia personal)	PEAP (Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomiko)
PECEF (Prestación económica para cuidados en el entorno familiar)	PECEF (Familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomiko)
PEVS (Prestación económica vinculada al servicio)	PEVS (Zerbitzua kontratatzeko prestazio ekonomiko / zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko)
PH (Proyecto Hombre)	GH (Gizakia Helburu)
PIA (Programa individual de atención)	BAP (Banakako arreta programa)
PNC (Pensión No Contributiva)	PNC (Kotizazio gabeko pentsio / laguntzako pentsio / pentsio ez-kontributibo)
RAI (Resident Assessment Instrument)	RAI (Resident Assessment Instrument)
RGI (Renta de Garantía de Ingresos)	DBE (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta)
SAD (Servicio de ayuda a domicilio)	ELZ (Etxez etxeko laguntza zerbitzu)
SAPU (Servicio de Atención al Paciente y Usuario)	PEAZ (Pazienteak eta erabiltzaileak atenditzeko zerbitzu)
SSB (Servicios sociales de base)	OGZ (Oinarrizko gizarte-zerbitzu)
SVGP (Servicio Vasco de Gestión de Penas)	ZKEZ (Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzua)
TIS (Tarjeta Individual Sanitaria)	OTI (Osasun-txartel indibidual)
URTMS (Unidad residencia de trastorno mental severo)	URTMS (Nahasmendu mental larriko egoitza unitate)

Laneko ohiko hiztegia

Oharrak:

- Hemen ez azaltzeak ez du esan nahi erabili ezin denik (sinonimoak, euskalkietako ordainak eta abar).
- Hitzak mugagabeen daude, eta mugatu egin behar dira erabiltzean.
- Hitz batzuek beste esanahi batzuk ere badauzkate: *cura* --> *sendaketa* (baina *apaiz* ere bai); dirección izan daiteke *helbide*, baina baita *zuzendaritza* ere; instrucción euskaraz *jarraibide* da, baina baita *eskolatze* ere...

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
acceso	sarbide
acceso a la vivienda	etxebizitzarako sarbide
adjunto/a	atxiki / erantsi
ahorro	aurrezki
albergue	aterpetxe
alojamiento en hospedaje	ostatuan
alquiler	alokairu
alta voluntaria del paciente	pazientearen borondatezko alta
andador	eskorga
anuncio	iragarki
aparición	agerraldi
apoderado/a	ahalorde
aportación económica	ekarpen ekonomiko
apoyo	laguntza

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
ascensor	igogailu
asuntos propios	norberaren eginbeharretarako / norberaren gauzetarako baimen
atención temprana	arreta goiztiar
autocuidado	autozainketa
autorización	baimen
autorización judicial	epailearen baimen / baimen judicial
autorizado/a	baimendu
ayuda económica	laguntza ekonomiko
ayuda social	gizarte-laguntza
ayuda técnica	laguntza tekniko
barrera ¹	eragozpen
barrera arquitectónica	oztopo arkitektoniko
barrera y ayuda técnica	muga eta laguntza tekniko
bastón	bastoi
bien inmueble	ondasun higiezin
buena condición	egoera on
capacidad de apoyo	laguntzeko gaitasun
capital mobiliario	kapital higigarri
carta	gutun
centro de atención diurna / centro de día	eguneko zentro
centro de noche	gaueko zentro

¹ Hiztegi sanitarioa.

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
centro de residencia	egoitza-zentro
centro ocupacional	arlo okupazionalako zentro
centro residencial	egoitza
certificado de empadronamiento	errola-ziurtagiri
cita previa	aurretiazko hitzordu
cobertura sanitaria	osasun-estaldura
comunidad autónoma	autonomia-erkidego
conflicto familiar	familia-gatazka
consentimiento informado	baimen informatu
contrato administrativo	administrazio-kontratu
conviviente	bizikide
cuantía	zenbateko
cuantía mensual	hileko zenbateko
cuarto de baño	bainugela
cuestionario	galdetegi
cuestionario sanitario para valoración	baloraziorako osasun-galdetegi
cuidado y recomendación	zainketa eta gomendio
curso de formación	formakuntza ikastaro
dato identificativo	identifikazio-datu
dato personal	datu pertsonal
declaración responsable	ardurapeko adierazpen

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
Departamento de Acción Social	Gizarte Ekintza Saila
Departamento de Hacienda y Finanzas	Ogasun eta Finantza Saila
dependencia	menpekotasun / mendekotasun (hobe)
dependencia leve	mendekotasun arin
dependencia moderada	neurritzko mendekotasun
derivar	deribatu ²
desajuste	desdoikuntza
desamparo	babesgabetasun
desarraigo	deserrotze
descuento en transporte	deskontua garraioan
desestabilización	ezegonkortze
desgravación fiscal	desgrabazio fiskal
deterioro progresivo	narriadura progresibo
día de descanso	atseden-egun
día festivo	jaiegun / festa-egun
día hábil	egun baliodun
día inhábil	egun baliogabe / ezegun
día laborable	lanegun
día natural	egun natural
diagnóstico	diagnostiko
dieta de comida	otordu-ordain
dieta de kilometraje	kilometraje-ordain

² Ikus, 24. orrialdea.

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
dirección	helbide / zuzendaritza ³
dirección electrónica	helbide elektroniko
discapacidad	desgaitasun
discapacidad auditiva	entzuteko desgaitasun
discapacidad intelectual	desgaitasun intelektual / adimen-desgaitasun
discapacidad motora	mugitzeko desgaitasun
discapacidad permanente	desgaitasun iraunkor
discapacidad psíquica	adimen-desgaitasun
discapacidad puntual	desgaitasun puntual
diversidad funcional	dibertsitate funtzional
domiciliación bancaria	banku-helbideratze
ejercicio	ariketa
elección de menú	menu-aukeraketa
empadronamiento	erroldatze
empadronar	erroldatu
enfermedad poco frecuente	ohikoa ez den gaixotasun
entidad derivante	deribazioa egiten duen erakunde
estable	egonkor
estancia temporal	aldi baterako egonaldi
evaluar	ebalatu
exclusión	bazterkeria
familia desestructurada	familia desegituratu

³ *Helbide* (egoitza adiera) / *Zuzendaritza* (kargudunen multzoa, edo zenbait atal edo sail nagusien izena).

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
familiar	senide
fecha de alta	alta-data
fecha de nacimiento	jaiotegun
ficha de domiciliación bancaria	banku-helbideratzearen fitxa
grado de discapacidad	degaitasun-gradu
grado de discapacidad	degaitasun-maila
gran dependencia	mendekotasun handi
gran invalidez	baliaezintasun handi
grave	larri
grave problema	arazo larri
guardador/a de hecho	egitatezko zaintzaile
habilidad social	trebetasun sozial
habitabilidad	bizigarritasun
hoja de reclamaciones y sugerencias	erreklamazio- eta iradokizun-orri
hoja de solicitud	eskabide-orri
hoja o tique de cita previa	hitzordu-orri edo -tiket
hospitalización	ospitalizazio
incapacidad	ezintasun
incapacidad laboral	lanerako ezintasun
incapacidad legal	legezko ezintasun
incapacidad permanente absoluta	ezintasun iraunkor absolutu
incapacidad permanente total	ezintasun iraunkor oso

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
indomiciliada/a	etxerik gabeko
información y consejos sobre enfermedad	gaixotasunari buruzko informazio eta aholku
información y preparación para la realización de prueba médica	proba medikoa egiteko informazio eta prestaketa
informe de accidente o agresión	istripu edo erasoei buruzko txosten
informe de prueba médica	proba medikoari buruzko txosten
informe de salud	osasun-txosten
informe de valoración de la dependencia (IVD)	mendekotasuna ebaluatzeko txosten (MET)
informe médico	mediku-txosten / txosten mediko
informe médico de alta	alta-txosten mediko
informe médico de salud para valoración de dependencia	menpekotasuna baloratzeko osasun-txosten mediko
informe psicológico	txosten psikologiko
informe social	gizarte-txosten / txosten sozial
informe social sociosanitario	txosten sozial soziosanitario
ingreso económico	diru-sarrera
ingreso regular	diru-sarrera erregular
instrucción	jarraibide / instrukzio ⁴
interesado/a	interesdun
jornada completa	lanaldi oso
jornada reducida	lanaldi murriztu
justificante cuenta bancaria	banku-kontuko egiaztagiri
justificante de asistencia	bertaratze-agiri

⁴ Dokumentu juridikoa adierazteko: *instrukzio*

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
justificante de presentación	aurkezte-agiri
leve	arin
libro de familia	familia-liburu
limitación grave	muga larri
limitación leve	muga arin
limitación media	muga ertain
limitación total	erabateko muga
limitado/a	mugatu
liquidación de gastos de viaje	bidaia-gastuen kitapen
lugar de nacimiento	jaioterri
mayor dependiente	mendekotasuna duen adineko
medida de apoyo	sostengu-neurri
medio de comunicación	komunikabide
medio de transporte	garraiobide
medio/a	ertain
menor de edad	adingabe
mensaje de correo electrónico	mezu elektroniko
muleta	makulu
municipio	udalerri
normas de funcionamiento	funtzionamendu-arau
nota de prensa	prentsa-ohar
notificación	jakinarazpen

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
número de afiliación	afiliazio-zenbaki
número de colegiación	elkargokide-zenbaki
paga	ordainsari
página web	webgune
parentesco	senidetasun
parte de lesiones	lesioei buruzko parte
participación social	parte-hartze sozial
pedido	eskaera
pensión	pentsio
persona de referencia	erreferentziazko pertsona
pésima condición	oso egoera txar
piso tutelado	tutoretzapeko/babespeko etxebizitza
portal	atari
prescripción médica	preskripzio mediko
prestación	prestazio
prestación económica	prestazio ekonomiko
prestación económica de dependencia	mendekotasuneko prestazio ekonomiko
prestación social	gizarte-prestazio
presupuesto	aurrekontu
pre-terminal	aurre-terminal
producto de apoyo	laguntza-produktu

GAZTELANIAZ**EUSKARAZ**

programa de vacaciones, ocio y tiempo libre	oporren, aisialdiaren eta denbora librearen programa
propiedad	jabetza
propuesta	proposamen
protección de datos	datuen babes
pupilage	apopilotza
recurso básico de zona	zonako oinarritzko baliabide
recurso sociosanitario	egoitza-baliabide soziosanitario
registro de parejas de hecho	izatezko bikoteen erregistro
renta de empleo	enplegu-errenta
renta de trabajo	lan-errenta
representación voluntaria	borondatezko ordezkaritza / ordezkaritza boluntario
representante	ordezkari
representante legal	legezko ordezkari
representante voluntario/a	borondatezko ordezkari
residencia legal	legezko egoitza
resolución	ebazpen
revisar	berrikusi
revisión	berrikuspen
revisión de valoración	balorazioaren berrikuspen
riesgo de exclusión	bazterkeria-arrisku

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
salud mental	osasun mental
sede electrónica	egoitza elektroniko
Seguridad Social	Gizarte Segurantz
servicio	zerbitzu
servicio de apoyo en domicilio	etxean laguntzeko zerbitzu
servicio de ayuda a domicilio	etxeko laguntza-zerbitzu
servicio ocupacional	zerbitzu okupazional
servicio residencial	egoitzako zerbitzu
silla de ruedas	gurpil-aulki
sin techo	etxegabe
situación convivencial	bizikidetza-egoera
situación de dependencia	mendekotasun-egoera
situación de exclusión	bazterkeria-egoera
situación económica	ekonomia-egoera / egoera ekonomiko
situación formativa	prestakuntza-egoera
situación laboral	lan-egoera
solicitante	eskatzaile
solicitud	eskabide / eskaera
solicitud de atención temprana	arreta goiztiarraren eskaera
solicitud de documentación clínica	dokumentazio klinikoaren eskari
solicitud de elección de médico	medikua aukeratzeko eskari
solicitud de facturación a terceros	hirugarrenei fakturatzeko eskari

GAZTELANIAZ**EUSKARAZ**

solicitud de gastos por prestación sanitaria	prestazio sanitarioen gastuen eskari
solicitud de intervención quirúrgica	ebakuntza kirurgikoa egiteko eskari
solicitud de orientación y obtención del informe técnico de idoneidad de productos de apoyo (GIZATEK)	laguntza-produktuak eskuratzeko orientazioa eta egokitasunari buruzko txosten teknikoa lortzeko eskaera (GIZATEK)
solicitud de pago de congresos, jornadas y cursos	kongresu, ikastaro eta jardunaldietarako ordainketa-eskaera
solicitud de plaza en centros sociales y sanitarios	gizarte- eta osasun-zentroetan plaza-eskaera
solicitud de prueba médica	proba medikoa egiteko eskari
solicitud de recurso residencial sociosanitario	egoitza-baliabide soziosanitarioaren eskabide
solicitud de segunda opinión médica	bigarren iritzi medikoaren eskari
solicitud de vacaciones	opor-eskaera
solicitud de valoración de dependencia (BVD)	mendekotasuna baloratzeko eskaera (MBB)
solicitud de valoración de la discapacidad	desgaitasuna baloratzeko eskaera
solicitud para la valoración, revisión o traslado de dependencia	mendekotasuna ebaluatzeko, berrikusteko edo lekualdatzeko eskabide
subvención	dirulaguntza
suficiente	nahiko
tarea	eginkizun
tarjeta de aparcamiento	aparkatzeko txartel
teleasistencia	telelaguntza
terminal	terminal
test de valoración	balorazio-test

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
tipo de ingreso	sarrera-mota
titularidad	titulartasun
total	erabateko/oso
trabajador/a social	gizarte-langile
trabajo protegido	lan babestu
trabajo social	gizarte-lan
trasladar	lekuz aldatu
traslado	lekualdaketa
traslado de expediente	espedientearen lekualdaketa
tratamiento	tratamendu
tratamiento de datos personales	datu pertsonalen tratamendu
unidad convivencial	bizikidetza-unitate
unidad de convivencia	bizikidetza-unitate
usufructo	gozamendun
valoración	balorazio
valoración inicial	hasierako balorazio
valoración urgente	presako balorazio
vínculo	lotura
vínculo familiar	familia-lotura
violencia de género	genero-indarkeria
violencia filiofamiliar	gurasoen aurkako indarkeria
violencia intrafamiliar	familia barneko indarkeria

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
vivienda	etxebizitza
vivienda colectiva	etxebizitza kolektibo
vivienda en alquiler	etxebizitza alokatu
vivienda en usufructo	gozameneko etxebizitza
vivienda propia	norbere etxebizitza
vivienda social	gizarte-etxebizitza / etxebizitza sozial
volante médico de interconsulta	konsultarteko bolante mediko

3. Material lagungarria

3. Material lagungarria

Gramatika, idazkera, estiloa

- *Euskara Batuaren Eskuliburua*, Euskaltzaindia
 - *Sareko euskal gramatika*, EHU
 - *Euskararen gramatika*, Euskaltzaindia
 - *Berriaren estilo liburua*, Berria
 - *IVAPeko estilo-liburua*, IVAP
 - *Euskaltzaindiaren arauak*, Euskaltzaindia
-

Hiztegiak

- *Elhuyar*
 - *Euskalterm*
 - *Gizarte Laneko Hiztegia (Elhuyar)*
 - *Gizarte Graduatuen Hiztegia*
-

Zuzentzaile ortografiko-lexikoak

- *Hobelex*, UZEI
 - *Xuxen*, Elhuyar eta IXA
-

Kontsulta-zerbitzuak

- *Zalantzen txokoa*, Euskaltzaindia
 - *Dudanet*, IVAP
-

Ariketak, praktikak

- *Ikasbil*, HABE
 - *EHUtsi*, EHU
 - *EIBZ*. Nafarroako Gobernua
-

Itzultzaile automatikoak

- *Elia*, Elhuyar
 - *Itzuli*, Eusko Jaurlaritza
-

Euskara tresnak eta beste baliabide batzuk

- *Euskarazko softwarea*, Eusko Jaurlaritza
-

Euskararen normalizazioa Osakidetzan

- *III. Plana 2022 - 2028*
- *Osakidetza Euskarazko Estilo Liburua*
- Osakidetza hizkuntza ofizialak erabiltzeko protokoloa
- Osakidetza langileentzako euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak
- Euskaraz lan egiteko trebakuntza-ikastaroak

Gizarte-lana euskaraz

- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko eta baliokidetzeko prozesuak
 - *Osatuberri* aldizkaria
 - Gehitu Osakidetzako helbideak:
 - o Material erabilgarria non dagoen Intranetean
 - *Lanerako laguntza tresnak* (sharepoint.com)
 - o Laguntza behar izanez gero, nora jo: euskara.zerbitzukorporatiboa@osakidetza.eus
-

